

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

KOMETA



Behin mutiko batek parkean kartoi zati bat aurkitu eta etxera eraman zuen. Joxe Felipe zuen izena mutikoak, baina denek Peli esaten zioten.

Etxera iritsi bezain laster, Peli logelan sartu zen. Guraizeak eta koloretako paper pila hartu eta arratsalde osoa lan eta lan eman zuen. Papera moztu eta itsatsi; itsatsi eta berriro moztu. Pelik ia amaituta zuen kometa, eta amak afaltzera dei egin zion.



Peli jangelan sartu zenean, zera galdetu zion aitak:

-Zertan aritu zara arratsaldean?

-Kometa bat egiten ari naiz – erantzun zion Pelik.

-Kometa bat! Erakutsiko al didazu gero, afaldu ondoren? Neuk ere atsegin ditut kometak – esan zion aitak.

Peli zain-zain egon zen, urduri, afaria noiz amaituko. Gero, korrika gelara joan eta kometa eraman zion aitari.

Peli harro zegoen; zera esan zion aitak:

-Lan bikaina, Peli. Oso polita da kometa. Bukatutakoan, parkera joango gara, hegan nola egiten duen ikustera.



1.- Bete hutsuneak:

1- Ipuineko mutikoak _____
du izena, baina denek _____
esaten diote.

2- Zer aurkitu zuen mutikoak parkean?

3- Nork deitu zion afaltzera joateko?

4- Pelik gelara joan eta _____
eraman zion aitari.

5- Aitak esan zuen: “Oso _____ da
kometa”.